

1

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA D.B.H. 3. mailako AUKERAGAIAK

✓ ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA: FRANTSESA

ZERGATIK?

Europar Batasuneko gomendioa da, gazteek atzerriko bi hizkuntza ikastea Batxilergoa edo Erdi Mailako ziklo bat bukatu baino lehen.

Beraz, frantsesa bigarren atzerriko hizkuntza bezala ikasteak **aukera** asko emango dizkigu:

1. **Eleaniztasuna** eta konpetentzia linguistikoaren garapena.
2. Europar Batasunaren helburuekin bat etortzea atzerriko bigarren hizkuntza bat garatzean.
3. Hizkuntzaren bidez, bertze kultura eta bizimoduak ezagutzea **oso aberasgarria da garapen pertsonalerako**.
4. Ohitura eta ikuspuntu arrotzak begirunez hartzeak **personaren heziketa osoa** indartzen du eta aldi berean, posible egiten du norberarena baloratzea.
5. Hizkuntzak ezagutzeak bere **abantailak ditu lan munduan**. Lanpostu askotan ezinbestekoa da eta bertze zenbaitetan mailaz igotzeko edo soldata hobeak irabazteko aukera ematen du.
6. **Bidaiatzearen** gozamina gure eskura jartzen du eta **giza harremanak** sustatzen ditu.
7. Europarrak izateari etekina ateratzen ahal diogu Europar Batasunaren prestakuntzarako programetan parte hartuz: **bekak, praktikak Frantziako enpresetan eta abar**.
8. Honek guztiak **garrantzi berezia du eskualde honetan**. Frantzia gertu egonik, frantsesa ikastea **erakargarriagoa** da, eskolan ikasitakoa kalean praktikatzeko aukerak badaudelako. Eta noski, etorkizunean **lana aurkitzeko baliagarria** suertatuko zaielako ikasleei.

METODOLOGIA

Gure helburua ikasleek DBH4 eta Batx2 bukatzean hizkuntza lantzen jarraitzea da, eta atzerriko hizkuntzak ikasteko motibazioa sustatzea.. Horretarako metodologia inklusiboa erabiltzen dugu eta **dibertsitatea** tratatzen dugu, ikasle bakoitzaren garapena ziurtatuz bakarka zein talde lanean, eta proiektuka lan egiten dugu ikasleek oinarrizko baliabideak frantsesez lortzen dituzten heinean.

DBH1: oinarrizko hiztegia barneratzen saiatzen gara, eta bikoteka zenbait lan egiten hasten dira.

DBH2: Frantziako ikasleekin gutun trukaketa zuzenak egiten hasten dira.

DBH3: HIZKUNTZA ESKOLA lantzen dugu eta **Etwinning** programan parte hartzen dugu. Gero eta proiektu zabalagoak lantzen ditugu, hizkuntza maila garatzen doan heinean.

DBH4 BATX1 eta BATX2 erabat **proiektuka** lantzen dugu gaia eta **Frantzian** kokatutako ateraldiak sustatzen ditugu. 2022-23 ikasturtean Toulousera eta Bordelera joan gara abenduan. Batx1en HIZKUNTZA ESKOLA ere lantzen dugu.

EMAITZAK

-Ikasle bakoitzaren ikasteko erritmoa errespetatzen eta indartzen da. Orohar, ikasleek aukera hauek dituzte Frantsesa ikasten badute:

DBH1, DBH2, DBH3 ikasturtea Frantzian ikasteko aukera

DBH3: Hizkuntza eskolako frantseseko A2 titulua lortzea

BATX1: Hizkuntza eskolako frantseseko B1 titulua lortzea

✓ ENERGIA BERRIZTAGARRIEN TAILERRA

HELBURUA

Ikasleak energia berriztagarrien mundura hurbiltzea da, proiektu dibertigarriak eta praktikoak eginez. Baina, hein handi batean, hondakinetatik birziklatutako osagaiak erabiliz.

Horrez gain, jolasean eta esperimentazioaren bidez, ikasleek aukera izango dute hain ulergaitzak egiten zaizkien fisikako eta mekanikako oinarriko legeak era praktiko batean asimilatzea.

- **Nola ikasiko dut?**
Mundu errealekin lotura zuzena duten gaiekin aktiboki lanean arituta ikasiko dut.
- **Zer ikasiko dut?**
Proiektu bat eginez mundu errealeko arazo bat konpontzen edo galdera bati erantzuten saiatuko naiz, epe ertain edo epe luzeko proiektu batean lanean arituz.
- **Nola kalifikatuko zait?**
Egunerokotasunean proiektu zein aurkezpen lanetan aktiboki arituta.

Bakoitzak dituen ezagutzak eta trebetasunak erakutsiz, produktu bat sortuta, eta produktu hori publikoaren aurrean aurkeztuta. Horrela ikastearen ondorioz, ikasleek, pentsamendu kritikoa, lankidetzeta-gaitasunak, sormena eta komunikazio-gaitasunak lantzen dituzte, edukiak sakon ikasteaz gain.

✓ OINARRIZKO GARAPEN FISIKOA

Institutu mailan azken urtetan gure Departamentu mailan egindako balorazioan, **gero eta ikasle sedentario gehiago** badago, Gorputz Hezkuntzako klasetatik kanpo inongo ariketa fisikorik egiten ez dutenak. Etxabeetan pasatzen dituzte gero eta ordu gehiago, eta bere aisialdi erak gero eta geldoagoak dira. Ondorioz, errendimendu fisikoko maila behititzen doa regresio nabarmenaren. Errendimendu fisikoak, osasunarekin daukan loturaren ikuspegitik ulertzen dugu:

- Erresistentzi maila baxua arazo eta eritasun kardiobaskularrekin batipat dago lotuta.
- Indar falta osteoartikularki sumatzen da: bizkarreko arazoak (lunbalgiak, bizkarrezurrako okerdura patologikoak: eskoliosiak, lordosi-zifosi haundiegiak, zerbikalgiak...), giltzadura ahultasuna: horkatilik, sorbaldak eta batez ere belaunetakoak (nesketan nabarmenagoa).
- Malgutasun gabeziak arazo lokomotorrak ekar ditzake.
- Abiadura eskasak bizitzaren zenbait egoeretan erantzuna emateko aukera deusezten du.

XEDE OROKORRAK.

Oinarriko gaitasun fisikoak lantzea, bai ariketa analitiko nola kirolean intergratutakoen bidez.

- **ERRESISTENTZIA:** Ikaslearen garapen kardio-baskularrekin lotuta dago. Arlo honetako eritasunak prebenitzen ditu. Esfortzua denboran zehar mantentzea da helburu nagusia.
- **INDARRA:** Gaitasunen oinarria da. Ikaslearen hazkunde garai honetan, arras garrantzitsua da ariketa egokien bidez garapen honetan laguntzea.
- **ABIADURA:** Ikaslearen nerbio sistema guztiz garatu baino lehen landu behar da espreski gaitasun hau. Beraz, garai egokia dugu.
- **MALGUTASUNA:** Haunditzen dijoazten neurrian, malgutasuna desorekatzen joaten da. Malgutasun lana indar lanerakin uztartuko dugu, garapen orekatua lortzeko.

Materia honetan **gazteak herritartasun arduratsu eta lan-bizitzarako prestatzeko baliagarriak diren aspektu teoriko eta praktikoa lantzen dira**; ekintzaileak nortzuk diren ezagutzera laguntzen du, zer egiten duten eta zer behar duten, baina aldi berean **prestakuntza-ibilbide profesionalaz eta norberaren karreraz** jabetzeko laguntza ematen du, eta, azken finean, bizitzan funtsezko erabakiak hartzeko, hori guztia zehatzagoak diren aspektuak atzendu gabe eta **negozio propioa sortzeko aukerarekin zein erakunde baten barnean bere lanean berritzaileak** izateko zerikusia dutenak.

Materia honekin lotuta dagoen **gaitasun garrantzitsuena “ekimen ekintzailea eta izpiritu ekintzailearen sena”** da, eta eragin zuzena dauka jarduera ekonomikoan eta pertsonen gizartean duten ekarpenean, gizartean txertatzean eta komunitatearen ongizatea bermatzean.

EDUKIAK hiru bloketan biltzen dira:

1 Blokea. Autonomia pertsonala, lidergoa eta berrikuntza.

- **Pertsona ekintzailearen ezaugarri pertsonalak:** ekimena, autonomia, pertseberantzia, auto-kontrola, norberaganako konfiantza, zentzu kritikoa, ardura, auto-diziplina.
- **Gia-trebetasunak:** talde lana, lankidetzak, komunikazioa, enpatia, asertibitatea.
- **Zuzendaritza trebetasunak:** planifikaziorako gaitasuna, erabakiak hartzea eta ardurak onartzea, lidergoa.

2 Blokea. Enpresa-proiektua.

- **Pertsona ekintzaile motak:** auto-enplegua eta ekintzaile sozialak.
- **Proiektu pertsonala eta profesionala:** karrerak eta lan-aukerak.
- **Enpresaburua,** enpresaburu motak. Langile autonomoa.
- **Enpresa-jarduera.** Ingurua, arriskua eta gizarteari ekarpena.
- **Ideen sorrera estimulatzeko teknikak.** Negozio-alternatibak eta balioaren sorkuntza.
- **Negozio Plana:** negozioaren ideia eta objektua; merkataritza plana eta plan ekonomiko-finantzarioa.
- **Proiektuaren bideragarritasuna,** diru-sarrera eta gastuen oinarritzko kalkuluetan oinarrituz.
- **Giza baliabide eta baliabide materialen Planifikazioa.**
- Enpresaren funtzio ezberdinekin lotutako **oinarritzko dokumentu administratiboak egitea eta artxibatzea** (fakturak, txekeak, ordainagiriak, nominak...)
- Enpresa eta Administrazio Publikoen arteko harremana: **martxan jartzeko izapideak,** zergak eta enpresendako dirulaguntzak.
- **Enpresaren erantzukizun soziala** eta gizartean zein ingurugiroan bere eragina.

3 Blokea. Finantzak.

- **Dirua** bere forma guztietan: **ordainketa modu** berriak (zor-txartelak eta kreditu-txartelak, merkataritza-txartelak, transferentziak).
- **Moneta ezberdinak eta kanbio-tasa.**
- **Merkataritza bitartekariak.**
- **Oinarritzko finantza-produktuak:** kontu korronteak, maileguak eta kredituak.
- **Aurrekontu pertsonala edo familiarra.** Etorkizuneko **gastuen** aurreikuspena. **Diru-sarreraren** iturriak: (soldatak, dirulaguntzak, alokairuak, mozkinak...).
- **Aurrezkiak.** Aurrezkiak eta inbertsio-produktuak. Banku-gordailuak, zor publikoa...
- **Interes-tasa** aurrezkiaren ordaina gisa eta maileguen koste gisa.
- **Aurreikuspen formulak:** aseguruak eta pentsio planak.
- **Zergak** finantza pertsonaletan.
- **Finantza-merkatuaren kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrak.**

✓ KONPETENTZIA DIGITALA

HELBURUA

Helburua da ikasleak gaitzea, modu etiko, arduratsu, seguru eta kritikoz informazioa kudeatzen eta erabiltzen hainbat gaitasun garatuz, hala nola hizkuntza-gaitasuna, gaitasun digitala, alfabetatze mediatikoa edo sormena.

- **Nola ikasiko dut?**

Mundu errearekin lotura zuzena duten gaiekin aktiboki lanean arituta ikasiko dut, **aldizkari** bat sortuz, **irradi saio** bat emanez eta **pelikula** bat editatuz.

- **Zer ikasiko dut?**

Diseinu grafikorako aplikazio desberdinak ezagutu eta erabiltzen ikasiko duzu. Hiruhileko bakoitzean komunikabide berri bat abian jarriko da eta aurretik jarritakoak mantendu guztientzat edukiak sortuz.

1.hiruhilekoa: eskualdeko berriei buruzko **hilabetekari** bat egingen duzue. Horretarako beharrezko diren aldizkariaren atalak diseinatu beharko dituzue eta ikastaldearen artean lanak banatu. Hilabetekariaren aleak inprimatuz nahiz digitalki webean argitaratuko dira eta ikas komunitatean zabalduko dira.

2.Hiruhilekoa: irradi saio bat sortuko duzue. Ikastaldea taldetxoetan banatuko da tematika ezberdinei buruzko irradi saioak garatzeko eta grabatzeko. Webgune bat garatuko duzue, ikasgelako ikasle guztien lankidetzaren bidez, bertan eduki digitalak txertatzeko, hala nola testuak, bideoak, irudiak eta ingurune birtualak.

3.hiruhilekoa: Ikastaldea taldetxoetan banatuko da tematika ezberdinei buruzko **TV saioak** garatzeko eta grabatzeko. Youtubeko kanalen bidez argitaratuko dira eta webean ere lotura izango dute.

- **Zertarako?**

Herritar digital aktiboa, konpetentea eta konprometitua izateko.

Eskola-egunkari edo -aldizkari bat argitaratzeak, **irradi saio** bat prestatzeak edo **pelikula** bat editatzeak, ikastera motibatzeaz gain, hainbat gaitasun garatzen lagunduko zaitu, hala nola hizkuntza-gaitasuna, gaitasun digitala, alfabetatze mediatikoa edo sormena.

- **Nola kalifikatuko zait?**

Ebaluatzeko gure argitarapen bakoitzerako eskaturiko banakako eta taldekako ekoizpenak erabiliko dira batipat.

Horretaz gain autoebaluazio eta koebaluazioa erabiltzen ahal da ebaluazio gehigarritzat.

Ikastaldearen eguneroko lanaren arabera irakasleak idatzizko eta ahozko probak jar ditzake ebaluazio tresna gisa.